



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
C.I.F./ I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

62. ALDIZKARIA - 2018ko martxoaren 28a

ORDENANTZA, UDALAREN LOKALAK ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

18. ORDENANTZA

Hona hemen ordenantzaren testua:

1. KAPITULUA

OINARRIA

1.1. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatuari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikuluko baimenaren babesean.

2. KAPITULUA

ORDAINDU BEHARRA

2.1. Prezio publikoa ordaindu beharra erabilpen baimendua hasten denetik sortzen da, hura gauzatu baino bi egun lehenago beranduenez zenbatekoaren gordailua eskatuko bada ere, udalaren zerbitzu hauek emateagatik sortutako gastuak izan ezik: espazio eszenikoa erabiltzeko txarteldegia, bertaratuei lekua ematea, aretoko argizatze eta soinu teknikaria, eta garbiketa; horiek guztiak erabili ondoren igorriko dira, egiazki emandako zerbitzua teknikoki zehaztu ondoren.

2.2. Eskatzaileak erabiltzeari uko egiten ahalko dio ekitaldirako ezarritako data baino hogeita lau ordu lehenago gutxienez, eta halakoetan prezio publikoaren %50 itzuliko zaio. Espazio eszenikoa erabiltzeari uko egiteko gutxieneko epea astebetekoa izango da, aipatu espazioa erabiltzeko behar diren langileen antolaketa dela-eta.

3. KAPITULUA

ORDAINDU BEHARREKOAK

3.1. Udalak aipatu lokalak erabiltzeko baimena nori ematen dion, haiexek daude beharturik prezio publikoa ordaintzera.

3.2. Honako hauek ez daude prezio publikoa ordaintzera beharturik: Udalbatzan ordezkariak duten talde politikoak, gizarte eta hezkuntza elkarteak eta gainerako entitateak, irabazi asmorik gabeak eta Antsoaingo Elkartearen Udal Erregistroan inskribatuak, edo helbide soziala edo berariazko ordezkariak iraunkorra Antsoainen dutenak, eta Antsoaingo Udalak interes kulturala edo soziala dela-eta, eskaera eta justifikazioa egin ondoren, halakotzat jotzen dituen entitateak. Espazio eszenikoa erabiltzea eskatuz gero, hura erabiltzeko txarteldegia, bertaratuei lekua ematea, aretoko argiztatze eta soinu teknikaria, eta garbiketa udalaren zerbitzuak emateagatik sortzen diren aparteko gastuak ez dira salbuetsiko ordaindu beharretik, ez bada Udalaren kultura programazioan daudela eta/edo interes kultural edo sozialarengatik Udalak ulertzen duela ez dutela ordaindu behar.

4. KAPITULUA

ERABILERA

4.1. Baimena Udalbatzak udal lokalen erabilpenerako onetsitako arauen arabera emango da.

4.2. Erabiltzeko eskaeraren ondorioetarako, jaieguntzat hartuko dira Udal honetako langileen lan egutegian halakotzat hartzen direnak.

4.3. Eskatzen denean Udalaren lokala doan erabiltzea jaiegunetan edo, lanegunetan bada ere, hura itxita dagoen orduetan, Udalak baimena eman dezake ondoko baldintza hauek betez gero, pilotalekuaren eta espazio eszenikoaren erabilera izan ezik:

4.3.1. Entitate eskatzaileak ordenantza honen 3.2. apartatuan adierazitako bat izan behar du.

4.3.2. Eskabidea ordenantza honen II. eranskineko ereduari jarraikiz aurkeztuko da. Giltzaren ardura duen pertsona adinez nagusia izango da, eta lokalaren giltza nahiz lokala bera behar bezala erabiltzearen ardura izango du ondorio guztietarako, lokala erabiltzean Udalaren lokalak erabiltzearen gainean indarra duten araei jarraituz.

4.3.3. Udalak zehazten duen tokian, egunean eta orduan baino ez zaio emango eta jasoko giltza entitate eskatzaileak izendatutako pertsonari, eta horrek Udalean aurkeztutako fitxaren kopia bat eta NANA aurkeztu beharko ditu.

4.3.4. Eskaerak ekartzen duenean lokalean dauden eta aldez aurretik prestatu behar diren materialak, hala nola aulkiak, proiektorea eta beste, saioak egingo dira prestaketa hori lanorduetan egiteko, Udalaren langileen aurrean eta haien aholkuei jarraituz, bertan beste jarduera bat egiteak ez badu halakorik eragozten.

4.3.5. Erabiltzeko eskaera bateraezina bada aldez aurretik programatutako jardueraren batekin, Udalak ukatuko du erabiltzeko baimena, eta, ahal delarik, eskatzen den erabilerarako beste aukera bat eskainiko du eskura dauden udal lokalen artean.



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
C.I.F./ I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

62. ALDIZKARIA - 2018ko martxoaren 28a

5. KAPITULUA

TARIFAK

5.1. Lokalak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifak ordenantza honen I. eranskinean agertzen dira, balio erantsiaren gaineko zergaren kuota barne, hala badagokie.

I. ERANSKINA

TARIFAK

I. epigrafea.–Udalaren lokalak erabiltzea, pilotalekua barne, kirolerako ez bada.

–3 ordu edo denbora gutxiagorako lagatzea, egunean: 64,00 euro.

–3 ordu eta 6 ordu arte lagatzea, egunean: 115,35 euro.

–6 ordu baino gehiagorako lagatzea, egunean: 166,70 euro.

II. epigrafea.–Espazio eszenikoa erabiltzea.

–Lagatzea, gehienez ere bost ordurako: 300 euro.

–Lagatzea, gehienez ere 10 ordurako: 500 euro.

–Txarteldegi zerbitzua, orduko: 16 euro.

–Bertaratuei lekua emateko zerbitzua, orduko: 16 euro.

–Aretoko argizatze eta soinu teknikariaren zerbitzua, orduko: 30,25 euro.

–Garbiketa zerbitzua, orduko: 16 euro.

Igande eta jaiegunetan emandako zerbitzuen kostuari %50 gehituko zaio.

III. epigrafea.–Murriztapenak.

III.1. Lokalaren erabilpena gutxienez ere 5 egun jarraian: %20.

III.2. Lokalaren erabilpena gutxienez ere 7 egun jarraian: %30.

II. ERANSKINA

ANEXO II
SOLICITUD DE USO DE LOCAL MUNICIPAL PARA ACTIVIDAD PUNTUAL.
JARDUERA KONKRETU BAT EGITEKO UDALAREN ARETOAK ERABILTZEKO
ESKAERA.

Entidad solicitante/Eskatzen duen entitateak	CIF

Local solicitado/Eskatutako lokala:

Fecha de la actividad / Jardueraren data	
Hora inicio de la actividad / Jardueraren hasiera ordua	
Hora del fin de la actividad / Jardueraren bukaera ordua	

MATERIAL A UTILIZAR / ERABILIKO DEN MATERIALA
(Marcar con una X) / (X batekin markatu)

Sillas/Aulkiak
(señalar la cantidad de sillas a utilizar) (aulki kopurua adierazi)

Proyector / Proiektorea

Megafonía /Soinuaren ekipoa.....

Otros /Besteak (especificar/adierazi)

Datos de la persona responsable de la llave del local a utilizar/Erabiliko den aretako giltzaren arduradunaren datuak:

Nombre y apellidos/Izen abizenak	
Dirección /Helbidea	
DNI / NAN	Teléfonos /Telefonoak
Correo electrónico / Helbide elektronikoa	

Ansoáin, a de de / Antsoain,koren(a)

(Firma / Sinadura)

Permiso de Alcaldía / Alkatetzaren baimena,	Fecha de entrega de llave / Giltza jaso den eguna
	Firma / Sinadura
	Fecha de recogida de llave / Giltza jaso den eguna
	Firma / Sinadura

De conformidad con el artículo 5 de la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de datos de carácter personal, se le informa que los datos aportados en esta instancia se incorporarán al fichero denominado "fichero de instalaciones municipales, cuya finalidad es la de autorizar y llevar el control de acceso a las instalaciones municipales. Podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación u oposición en las dependencias de la oficina de atención ciudadana del Ayuntamiento de Ansoáin, aportando copia de documento que acredite su personalidad / Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluari jarraikiz,



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
C.I.F./ I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

62. ALDIZKARIA - 2018ko martxoaren 28a

jakinarazten zaizu inprimaki honetan lagatako datuak “udal instalazioen fitxategia” izeneko fitxategian sartuko direla, eta fitxategi horrek helburu duela udal instalazioetan sartzeko baimenak ematea eta sarrerak kontrolatzea. Antsoaingo Udaleko herritarren arretarako bulegoetan eskubidea izanen duzu datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta kontra egiteko, nortasun agiria erakutsita.